



2016 URTARRILA - AUZO BATZARRAK

ASAMBLEAS MUNICIPALES - ENERO 2016

Auzoa Barrio	ERDIALDEA/ ZONA CENTRO	
Data Fecha Ordua Horario Lekua Lugar	2016-01-28 19:00 – 21:20 LAUDIOKO KULTUR ETXEA CASA DE CULTURA DE LLODIO	
Bertaratuak Asistencia	<p>*Ordezkaritza politikoa representación política</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jon Iñaki Urkixo Orueta. BILDU - Jon Ander Altube Lazkano. BILDU - Amets Meaza Castañares. BILDU - Iñigo Martínez Cerrillo. BILDU - Maider Basterra Ibarretxe. EAJ/PNV - Alvaro Barrios Medina. OMNIA - Txaro Sarasua Díaz. PSE-EE <p>- *Udal teknikariak técnicas/os municipales</p> <ul style="list-style-type: none"> - Juan Fernando Etxebarri - Laura Castresana - Joseba Solaun <p>*Idazkaria secretaria/o</p> <ul style="list-style-type: none"> - Izaskun Iturbe <p>*Dinamizatzailea moderador/a</p> <ul style="list-style-type: none"> - Epi Zurimendi <p>*Auzokideak vecinas/os</p> <ul style="list-style-type: none"> -guztira total 34 -neska 13 -mutilak 21 	
Gaien zerrenda Orden del día	<p>1_ Aurkezpena presentación (Natxo)</p> <p>2_ Aurrekontu parte parte hartzaileak Presupuestos participativos (Amets)</p> <p>3_ Egindakoaren berri eman Dar cuenta (Jon Ander)</p> <p>4_ Galderak Preguntas</p>	
	Euskaraz	Gaztelaniaz
Edukia Contenido	<p>1_ Batzarra hasteko, Laudioko alkate Jon Iñaki Urkixok instituzioen ordezkari gisa bertaratu diren pertsonak aurkeztu ditu eta, jarraian, azaldu du aurten Auzo Batzarrak normalean baino beranduago egin direla abenduko hauteskunde orokorren ondorioz, ez baitzen egokitzat jo batzarrak hauteskunde kanpainaren garaian egitea. Azalpen horiek egindakoan, Amets Meazari eman dio hitza.</p>	<p>1_ Se inicia el acto con una presentación hecha por Jon Iñaki Urkixo, Alcalde de Llodio, de las personas que acuden a la asamblea en representación institucional, explicando a continuación que este año las Asambleas de Barrio se han pospuesto de su fecha habitual por motivo de las elecciones generales que se celebraron en diciembre, ya que no consideraron adecuado hacer este tipo de asambleas en campaña electoral. Acto seguido pasa la palabra a Amets Meaza.</p>



2_ Ogasun eta Ondare Arloko zinegotzi Amets Meazak labor azaldu ditu parte-hartze bidezko aurrekontuak eta esan du abendura arte jaso diren inkestekin lotuta daudela.

Labur definitu du zer den aurrekontua eta azaldu du bi parte dauzkala: diru-sarrerak eta gastuak. Gastuak bi modutan sailkatzen dira; arloka eta atalka.

Bereizketa horren zergatia da aurrekontua zati orokorra eta zati espezifikoaren zuten inkestarekin lotu beharra. Halaber, zati espezifikoaren bi zatitan banatzen da; Laudio osoari eragiten dioten gaiak eta kasuak kasuko eremukoak, honakoan, erdialdekoak. Inkestan bertan, 2012ko beharren inkestatik eratorritako hiru lehentasunei dagozkien hiru ekintza azaltzen dira.

Bukatzeko, ekarpenak egiteko moduak gogoratu ditu Amets Meazak: Batzarrak, udal webgunea eta urtarrilaren 29ra arte udalerrira osoan zehar banatu diren postontzietan utzi daitezkeen inkestak. Inkesten helburua da ekarpenak jasotzea eta, ahal den heinean, aurrekontuak prestatzeko kontuan hartzea.

3_ Obra, Zerbitzu eta Mantentze-lanen nahiz Landa-ingurunearen Arloko zinegotzi Jon Ander Altubek batzarraren gai zerrenda jakinaraziz hasi da: lehenik eta behin, Gobernu Taldeak udalerraren egungo egoeraren berri emango du eta, ondoren, txanda emango zaie auzokideei beharrezkotzat jotzen dituzten gaiak azal ditzaten, betiere, batzar honetan jorratzen den eremukoak baldin badira. Gobernu Taldeko kideek eta udal teknikariek planteatutako gaiak erantzuten saiatuko dira. Ondoren, batzarraren gai zerrenda jorratzeari ekin zaio:

➤ **Argiteria**

Zenbait urtez, energia-eraginkortasunaren aldeko pausoak ematen saiatu gara eta

2_ Amets Meaza, Concejal del Área de Hacienda y Patrimonio, hace una breve explicación de los presupuestos participativos que están relacionados con la encuesta que se han recibido hasta diciembre.

Define de manera breve lo que es el presupuesto y explica que está compuesto por dos partes: ingresos y gastos. Los gastos se clasifican de dos maneras, en áreas y capítulos.

El objetivo de hacer esta diferencia es enlazarlo con la encuesta que contiene un área global y un área específica. Esta última se divide a su vez en dos partes, cuestiones específicas de Llodio en general y de la zona que se trate, en este caso, el centro. En la propia encuesta se reflejan tres acciones que son consecuencia de las 3 primeras prioridades que se concluyeron de la encuesta de necesidades que se realizó en 2012.

Para terminar su intervención, Amets Meaza recuerda las vías de hacer aportaciones: las Asambleas, la página web y las encuestas que se pueden dejar hasta el 29 de enero en los buzones repartidos por el municipio. El objetivo de estas encuestas es recoger las aportaciones para tenerlas en cuenta, en la medida posible, en la elaboración del presupuesto.

3_ Jon Ander Altube, Concejal del Área de Obras, Servicios, Mantenimiento y Medio Rural, explica la estructuración de la asamblea: primeramente se hará una exposición por parte del Equipo de Gobierno de la situación actual del municipio y posteriormente se dará un turno al vecindario para que exponga las cuestiones que estime oportunas, con relación a las zonas que se tratan en la presente reunión, a las que el Equipo de Gobierno y técnicos municipales intentarán finalmente dar respuesta. Comienza con el orden del día de la asamblea:



2015ean hainbat inbertsio egin ziren, orotara, 58.000 euro. Halaber, Jose Matia kaleko hainbat kale-argi lekuz aldatu ziren, kalearen zati hori urbanizatu zenean ez zirelako behar bezala kokatu. 2016rako asmoa da argiteria berritzea Eroskiko biribilgunetik Irukurutzetaraino eta Nerbioiraino.

➤ **Lamuza parkea**

Obrak egiten ari dira Musikaren Etxean eta gutxi barru kasinoan ere egingo dira. Arabako Foru Aldundia da Lamuzako monumentu multzoaren, hau da, Musika Etxearen eta kasinoaren jabea, etxe nagusia kenduta, azken hori Udalarena baita. Batzar Nagusiek onartutako Foru Arauan, Lamuzako monumentu multzoa berreskuratzeko bederatzi milioi euroko finantzazioa emateko konpromisoa hartu zuten. Erabaki horri esker, Musikaren Etxea birgaitzeko lanak hasi dira dagoeneko eta, aurreikusitakoaren arabera, udan bukatuko dira; 842.000 euro esleitu dira orotara horretarako. Kasinoari dagokionez, Aldundia eraikina eta urmaela birgaitzeko proiektua idazten ari da. Proiektua onartu ondoren, lanak esleituko lirateke eta hori ere aurten bukatzea aurreikusi da. Bitartean, SOS Parkea plataformarekin elkarlanean ari da Udala eta, aldi berean, Aldundiarekiko harremanari eusten eta iradokizunak helarazten saiatzen ari da, kontuan har ditzaten, udalerrian dauden eraikinek direlako eta udalerrirako erabilerak bat izango dutelako. Horrez gain, parkeari eta eraikinei eman dakizkien erabilerak parte-hartze bidez zehazteko prozesu bat diseinatzeko konpromisoa hartu du Udalak.

➤ **Zubiko-Kurajo**

Proiektuaren hirugarren faserako aurrekontuan 1.200.000 euro ditugu. Jose Matia eta Zubiko-Kurajo urbanizatzeko

➤ **Iluminación**

Se llevan varios años intentando dar pasos en materia de eficiencia energética y en el año 2015 se realizaron varias inversiones por un importe de 58.000 euros. Se aprovechó también para cambiar la ubicación de varias farolas en la calle Jose Matia que en su momento cuando se urbanizó ese tramo no se hizo correctamente. En 2016 la intención es renovar el alumbrado desde la rotonda de eroski hasta tres cruces y Nerbioi.

➤ **Parque Lamuza**

Se están haciendo obras en la Casa de la Música y próximamente también se harán en el Casino. La propietaria del conjunto monumental de Lamuza, es decir, Casa de la Música y casino, es la Diputación Foral de Álava, excepto la casa matriz que es municipal. Las Juntas Generales aprobaron una Norma Foral por la que fijaron un compromiso de financiación nueve millones de euros para recuperar el conjunto monumental de Lamuza. En el marco de este acuerdo, se han iniciado ya trabajos de rehabilitación de la casa de la música y está previsto que terminen para verano, con un importe adjudicado de 842.000 euros. En lo que se refiere al casino, la Diputación está redactando el proyecto de rehabilitar el edificio del casino y la zona del estanque. A partir de la aprobación se adjudicarían los trabajos y también está previsto que acaben este año. El Ayuntamiento mientras lo que está haciendo es colaborar con la plataforma SOS Parkea, y lo que se procura es intentar mantener relación con la Diputación y hacer llegar nuestras sugerencias para que se tomen en consideración, en la medida que son edificios que están situados en el municipio y que van a tener un uso para el municipio. El Ayuntamiento ha adoptado también el compromiso de diseñar un proceso de participación para decidir qué uso se le puede dar al parque y a los edificios.

➤ **Zubiko-Kurajo**



proiektu handi baten hirugarren fasea da eta geltokiaren ingurua ere barne hartzen du. Arabako Foru Aldundiaren ebazpenaren zain gaude; martxorako aurreikusita dago. Horrela, obra egiteko zenbatekoa jakingo dugu eta 2016ko irailean edota urrian has gitezke. Obra eta Zerbitzuen Foru Planean sartuko dira lanak.

Laudio Udaleko arkitekto-laguntzaile Laura Castresanak hirugarren fasea zertan datzan azaldu du: Zubiko-Kurajoko azken zatia hartzen du. Zubiko tunelerako sarbidea barne hartu da; arrapala hobetuko da horretarako. Azpiegiturak hobetuko dira; LED argiak ipiniko dira, zabor-bilketa pneumatikoa instalatuko eta bilketa-sistema pneumatikoa Latorrorekin konektatzea ere aurreikusi da, trenbidea zeharkatuta.

➤ **Egoitza zaharra**

Obra eta zerbitzuen planerako aurkeztu den bigarren obra da eta egoitza zaharra birgaitzeko da. Momentuz, aurreproiektua baino ez dugu eta hor jasotako aurrekontuaren arabera, bi milioi eta berrehun mila euro beharko dira. Hiru espazio hartzen ditu aurreproiektuak: kanpoko aldea, diru-laguntzaren dirurik gabe birgaituko dena, erdiko eraikina eta estalpea. Proiektuan egitean erabakiko da zer erabilera emango zaion espazio bakoitzari. Lanak 2017an egikaritzeko asmoa dago.

➤ **Odeibarreko aparkalekua**

Behar bezalako aparkalekua lortzeko lanak egingo dira. 45.000 euro dauzkan aurrekontua dago; une honetan 25.000 euro dauzkan diru-partida dago eta otsailetik aurrera gainerakoa zuzkituko da. Kostuari dagokionez ez da obra handia, baina garrantzitsua da erdialdetik aterata behar bezalako aparkalekua lortuko delako. Lanek

Tenemos una tercera fase del proyecto presupuestada en 1.200.000 euros. Es la tercera fase de un gran proyecto que comprende la urbanización de Jose Matia Zubiko-Kurajo incluyendo el entorno de la estación. Estamos esperando la resolución de la Diputación Foral de Álava que se prevé para marzo y así conocer cuál será la cuantía para la obra y así poder comenzar en septiembre-octubre del 2016. Se incluirá en el Plan Foral de Obras y Servicios.

Laura Castresana, aparejadora del Ayuntamiento de Llodio, explica en qué consiste esta tercera fase: comprende el último tramo de Zubiko-Kurajo. Se incorpora acceso al túnel de Zubiko mejorando la rampa. Se mejoran las infraestructuras, incorporando la iluminación LED, recogida neumática y también se incorpora una conexión de la misma a la zona de Latorro cruzando las vías de tren.

➤ **Antigua Residencia**

Este es el segundo proyecto con el que se concurre dentro del Plan Foral de Obras y Servicios y comprende la rehabilitación de la antigua residencia. De momento sólo tenemos un anteproyecto que habla de un presupuesto estimado de dos millones doscientos mil euros. En el anteproyecto se diferencian tres espacios: el exterior, que en este caso no se rehabilitaría con dinero de la subvención, el edificio central y el cobertizo. En el proyecto se decidirá qué uso se le dará a cada uno de estos espacios. Se intentaría ejecutar los trabajos en 2017.

➤ **Aparcamiento Odeibar**

Se convertirá este parking en un aparcamiento en condiciones. Se cuenta con un presupuesto de 45.000 euros, se dispone ahora de una partida de 25.000 euros y a partir de febrero se habilitaría el resto. No es una obra



bi aste iraungo lukete eta 75 plaza geratuko lirateke markatuta. Gainazalak lautuko dira, asfaltatu egingo da, aparkatzeko plazak pintatuko dira, seinale horizontalak ipiniko dira eta perimetrea babesteko itxi egingo da.

➤ **Zubiko Etxea**

Jose Matia Zubiko-Kurajo bigarren fasearen luzapena. Baliabide propioekin finantzatu da hobekuntza hori, eremu osoa behar bezala azkentzeko aukera delako. Erdialdean bertan dagoen espazio publiko hori berreskuratzea da asmoa, duen balioa aitortzeko eta parkea ere berreskuratzeko. Orotara, 227.000 euro dauzkan aurrekontua bideratu da horretarako; horietatik 50.000 umeentzako jolas eremu baterako dira eta gainerakoa obra zibilak egiteko, putzua jatorrizkoarekiko antzik handiena izanda berreraikitzeko, irisgarritasuna bermatzeko eta, batez ere, espazioa horma bere horretan utzita irekitzeko (horma banku bihurtuko da); modu horretan, erabilera publikoa itzuliko zaio eta eraikinaren nahiz zonalde osoaren itxura hobetuko dira.

Laura Castresanak proiektua zertan datzan azaldu du: gaur egungo horma ixtea banku luze bihurtzeko eta, horrela, funtzio bikoitza lortzeko: eremuak bereiztea eta atsedenleku izatea. Oinezkoentzako bi eremu irisgarri, zoladura irmoarekin; umeentzako bi jolas-eremu ipiniko dira, putzua berreskuratuko da, hiri altzariak instalatuko dira eta bi gauza berri erantsi: jolas-eremu heze bat eta eguzki plaken bidez elikatutako USB kargagailu bat. Monolitoaren kokapena aldatu egingo da, dagokion garrantzia emateko eta Zubiko-Kurajoko zonaldea ireki egingo da eskaileren bidez.

➤ **Etxebarri baserria**

Etxebarri baserriak gaur egun duen egoera tamalgarria da eta helburua da berreskuratzea. Uztailean eskatu zen birgaitze-proiektua idazteko eta, aldi berean, hondakinak kentzeko lanak ere hasi ziren. Lanak gelditu behar izan ziren, baserriaren

importante en lo que a cuantía se refiere pero se convierte en un parking en condiciones sacándolo del centro urbano. Serían unas dos semanas de obras, quedarían marcadas 75 plazas. Las obras consisten en explanar superficies, asfaltar, pintar plazas, señalización horizontal y cierre perimetral de protección.

➤ **Zubiko-Etxea**

Prolongación de la segunda fase Jose Matia Zubiko-Kurajo. Es una mejora que se financia con recursos propios, ya que es una oportunidad para dejar bien rematada toda esa zona. Se quiere regenerar este espacio público que es muy céntrico, ponerlo en valor y recuperar el parque. El presupuesto es de 227.000 euros de los cuales 50.000 son para una zona de juegos infantiles, el resto está dirigido a la obra civil, recuperación del pozo de la manera más fiel posible, hacerlo accesible y sobre todo, abrir ese espacio manteniendo el muro (convirtiéndolo en un banco) y así devolverle un uso público y mejorar el aspecto del edificio y la zona en general.

Laura Castresana, explica en qué consiste este proyecto: cerramiento del muro actual convirtiéndolo en banco corrido y así hacer una doble función de separar zonas y ser lugar de descanso. Se crean dos zonas peatonales, accesibles, con pavimento firme; se definen dos zonas de juegos infantiles, se recupera el pozo, se dota de mobiliario urbano la zona, con dos novedades: una zona de juego húmedo y un cargador de USB a través de placas solares. El monolito se cambia de ubicación para darle la importancia que merece y se abre la zona a la calle Zubiko-Kurajo mediante escaleras.

➤ **Caserío Etxebarri**

El estado actual del Caserío Etxebarri es lamentable y el objetivo es recuperarlo. En julio se encargó la redacción del proyecto de



egoera zela eta, lan baldintzak arriskutsuak zirelako. Hirigintza arloko informazio batzordean erabaki da dauzkagun kontratu guztiak birbideratu behar direla Etxebarri baserriaren behin betiko estalkia ahal bezain laster jarri eta eraikina babesteko. Horrela, Udalak konpromisoa hartu du proiektuaren egikaritzea aurreratzeko, proiektua idazten den bitartean estalkia ipintzeko eta, ondoren, proiektuaren gainerako zatia egikaritzeko. Bi zenbaterako hartuko dira kontuan: 50.000 euro hondakinak kentzeko lanetarako (horrelako lanetarako teknika espezializatuagoak) eta 144.000 euro estalkirako.

➤ **Alberto Acero**

Udalak hitzarmena sinatu zuen zonalde horretan dagoen orubearen jabeekin, berreskuratzeko eta behin behinean okupatzeko, aurreikusitako etxebizitzak eraikitzen hasten diren arte. Orotara, 48.000 euroko kostua izan du eta lanak hasten direnean, han dauden umeentzako jolas-eremua kenduko da Laudioko beste lekuren batean kokatzeko, baina, bitartean, oso ondo geratu da tokia.

➤ **OZFP**

Horri dagokionez, aditzera eman dira Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren 2013ko eta 2015eko deialdien kariaz egindako bi obrak: Jose Matia Zubiko-Kurajoko bigarren fasea (milioi bat eta bostehun mila euro) eta Aldaiko erreka eta Lamuza parkeko saneamendu-obra zein hori guztia Zumalakarregiko kolektorearekin konektatzeko lanak (milioi bat eta ehun mila euro).

Lehenengo obrak atzerapenak izan ditu, baina bigarrena eredugarria izan da epe eta emaitzei dagokienez.

➤ **“Murmuro” ekimena**

Lamuza ikastetxeko gurasoen elkartetik sortu zen ekimena eta Udalak babestu egin du. Asmoa da kanpoko horman irudi bat

rehabilitación y en paralelo los trabajos de desescombros. Estos trabajos se han tenido que paralizar ya que el estado del caserío hace peligrar las condiciones de trabajo. En Comisión Informativa del Área de Urbanismo se ha decidido reconducir todos los contratos que tenemos para adelantar la cubierta definitiva del Caserío Etxebarri para proteger el edificio. De esta manera, el Ayuntamiento adquiere el compromiso de adelantarse en la ejecución del proyecto y hacer esa cubierta mientras se sigue redactando el proyecto y luego ejecutar el resto del mismo. Se van a tener en cuenta dos cuantías: 50.000 euros para trabajos de desescombros (técnicas más especializadas para trabajos de este tipo) y otra de 144.000 euros del coste de la cubierta.

➤ **Alberto Acero**

El Ayuntamiento suscribió un acuerdo con los dueños del solar situado en la zona para recuperarlo y ocuparlo de manera provisional hasta que comiencen las obras de edificación de las viviendas previstas. El coste total ha sido de 48.000 euros y cuando se inicien las obras se retirarán los juegos infantiles ubicados en la zona para reubicarlos en otro lugar de Llodio, pero mientras tanto la zona ha quedado muy bien.

➤ **PFOS**

En este aspecto se da cuenta de las dos obras efectuadas en las Convocatorias del Plan Foral de Obras y Servicios entre los años 2013 y 2015, que son la segunda fase Jose Matia Zubiko-Kurajo (un millón quinientos mil euros) y toda la obra del saneamiento del Arroyo Aldai Parque Lamuza y todo conectado al colector principal de Zumalakarregi (un millón cien mil euros).

En la primera obra ha habido retrasos pero la segunda obra ha sido modélica en lo que a plazos y resultados se refiere.

➤ **Iniciativa “Murmuro”**



margotuta elementu hori berreskuratzea, ikastetxea indartzea eta ingurunea hobetzea, elkarteen, ikasleen, gurasoen eta ekimenean parte hartu nahi duten guztien parte-hartzearekin.

➤ **Ikastetxeak**

Batzar guztietan azaldu dira Eusko Jaurlaritzaren deialdia aprobetxatuta Laudioko ikastetxeetan egindako inbertsioak: 2015ean 108.000 euro inbertitu ziren eta 2016an 160.000 euro inbertitzea aurreikusi da (diru-laguntza eskatuta dago). Ikastetxeekin egindako bileretan antzemandako beharrei lehentasuna ematen saiatzen gara.

➤ **LHUI Eusko Jaurlaritzaren ikastetxeen sare publikoan sartzea**

Lanbide Heziketako Udal Ikastetxea sare publikoan sartzeko prozesua oso aurreratuta dago; 2013ko lege bat dago oinarrian, hezkuntza-agintaritzari eta Udalari horretarako hitzarmena sinatzeko baimena ematen diena. LHUIk publiko izaten jarraituko du, baina sare publikoaren menpe egongo da zuzenean, ez Udalaren menpe. Horrela, LHUI hobeto kudeatuko da eta hezkuntza-eskaintza ere hobetuko da.

➤ **Enplegu-programak**

Enplegu-programen bidez, aldi baterako kontratuak egiten ari dira elkarreekiko hitzarmenen bidez e dalak zuzenean kontratatuta, Aiaraldeko kuadrillaren bidez. Oso lege murriztaileak onartu dira horrelako programetarako kontratazioei dagokienez eta horregatik egiten da elkarteen e kuadrillaren bidez. Helburua da gizarteratzea eta lan-munduratzeara sustatzea, programen esparruan dibertsifikatzea eta udalerriko lanak eginda denbora luzez langabezian egon diren pertsonak kualifikatzea. Hori dela eta, kontratu publikoetan gizarte klausulak sartzeko asmoa dago.

Esta iniciativa surge en la Asociación de padres y madres del Colegio Lamuza y el Ayuntamiento ofrece su apoyo a la iniciativa. La idea pretende hacer un gran mural en el muro exterior para recuperar ese elemento, potenciar el centro y mejorar el entorno a través de la participación de asociaciones, alumnos, padres, madres, y todo el que quiera sumarse a la iniciativa.

➤ **Centros Educativos**

En todas las asambleas se viene comentando las inversiones realizadas en los centros educativos públicos de Llodio aprovechando una convocatoria del Gobierno Vasco: en el 2015 hubo una inversión de 108.000 euros y para el 2016 se prevé que sean 160.000 (subvención solicitada). Se procura priorizar detectando las necesidades en reuniones con los mismo centros educativos.

➤ **Integración del CMFP en la Red Pública de Centros Educativos del Gobierno Vasco.**

Estamos en un proceso muy avanzado de integración del Centro Municipal de Formación Profesional en la red pública, en base a una ley del 2013 que autoriza a la Administración Educativa y al Ayuntamiento firmar un convenio para ello. El CMFP seguirá siendo público pero dependerá directamente de la red pública y no del Ayuntamiento. De esta manera el CMFP estará en mejores manos en lo que a gestión se refiere, mejor oferta educativa, etc.

➤ **Programas de Empleo**

Mediante estos Programas de Trabajo se están realizando contrataciones de personal eventual vía convenio con asociaciones o directamente el Ayuntamiento a través de la Cuadrilla de Ayala. Ha habido una legislación muy restrictiva para la contratación directa para estos programas y por ello se hace a través de asociaciones o la Cuadrilla. Se procura favorecer la inserción socio-laboral, intentar diversificar los ámbitos de los programas, cualificar a parados/as de larga



	<p>➤ "Hobetu zure herria" Webgunean badago erabilgarri "Hobetu zure herria" izeneko mekanismo bat, gorabeherak, iradokizunak, matxurak eta abarrak jakinarazteko balio duena. Horren bidez, abisu xume batekin konpon litezkeen gaien kudeaketa erraztu nahi da. Duela zenbait hilabete, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta gero, telefono mugikorretarako aplikazioak prestatzea ere erabaki zen, baina, bitartean, aukera hori da, ohiko gainerako aukerez gain.</p>	<p>duración haciendo tareas municipales. Por eso, se está intentando incluir cláusulas sociales en dichas contrataciones públicas.</p> <p>➤ "Mejora tu Pueblo" A través de la página web hay disponible ya un mecanismo llamado "Mejora tu Pueblo" mediante el cual se pueden comentar incidencias, sugerencias, averías,... y así agilizar la gestión de aquellas cuestiones que con un simple aviso podrían solucionarse. Hace unos meses, tras un debate plenario, se decidió también preparar otro tipo de aplicaciones para telefonía móvil pero mientras tanto está disponible esta opción además de las habituales.</p>
<p>Galderak Preguntas</p>	<p>➤ Batzarrera bertaratutako pertsona batek ohartxo bat eman dio Ogasun Arloko zinegotzi Amets Meazari. Oharrean, gai hauek aipatzen dira: Jez trenbideak dakarren arriskua, txakurren gorozkiak jasotzeko poltsatxoek inguruko kexak Jose Mardones kalean, autoen gasen ondoriozko kutsadura ikastolako errepidean, urteroko jaietan musikaren kokapenari buruzko kexak eta, azkenik, herriko jaietan zezenketak egitearen aurkako jarrera.</p> <p>Esan zaio oharra aktan jasoko dela.</p> <p>➤ Bertaratutako pertsona batek galdetu du nasak altxatzeko proiekturen bat adostu ote den Renferekin.</p> <p>Jon Ander Altubek erantzun du bi bilera egin direla Adifekin eta oso zail ikusten dutela. Halaber, galdetu egin da zer egingo duen Renfek geltokiko irisgarritasuna hobetzeko eta esan da ez dela ezer aurreratu. Geltokiko plazako irisgarritasunaz gehiago hitz egin da. Plataforma altxatzaileak araudia betetzen du, baina ez du eskatzen zaion zeregina betetzen.</p> <p>Renferi geltokira sartzeko beste aukera</p>	<p>➤ Una asistente de la Asamblea entrega a Amets Meaza, Concejala de Hacienda, una nota con las siguientes cuestiones: Vías del tren Jez peligrosas, quejas acerca de las bolsitas de recogida de excremento de los perros en Jose Mardones, contaminación de los gases de los coches en la carretera a la Ikastola, quejas acerca de la ubicación de la música en las fiestas patronales cada año y concluye la nota con su rechazo a los toros en fiestas.</p> <p>Se le comenta que se recogerá en la presente acta.</p> <p>➤ Un asistente pregunta si hay algún proyecto con Renfe para levantar los andenes.</p> <p>Jon Ander Altube responde que ha habido dos reuniones con Adif y que lo ven muy complicado. También se ha planteado qué está dispuesto a hacer Renfe para mejorar la accesibilidad de la estación y no se ha avanzado nada. Se ha hablado más de la accesibilidad de la plaza a la estación. La plataforma elevadora cumple normativa pero no cumple la función que se quiere.</p> <p>También se le ha planteado a Renfe otro tipo</p>



batzuk planteatu zaizkio, adibidez, Zubiko-Kurajotik sartzea. Erraza dirudien arren, ez dirudi momentuz bideragarria denik.

- Zubiko-Kurajoko auzokide batek ur kolektorearen arazoak planteatu ditu. Halaber, galdetu egin du azkenean kalea oinezkoentzat izango den ala ez,

Jon Ander Altubek erantzun du azken hilabeteetan kalea obren ondorioz egon dela irekita, baina etorkizunean oinezkoa izango dela berririo eta, berez, autoek ezingo dutela handik igaro. Halaber, esan du autoak ez igarotzeko gontzak ipintzen dituztenean, ibilgailuren bat sartu behar den salbuespen kasuetan, Udaltzaingoa arduratuko dela sarbidea ireki eta ixteaz.

- Batzarrera etorritako beste pertsona batzuek adierazi dute errepidean, batez ere, zebra bideetan, ez dagoela nahikoa argirik edo kale-argiak oso altu daudela; esan dutenez, euria ari duenean gidatzean ez dira ikusten zeharkatzen ari diren pertsonak.

Laudioko alkate Jon Iñaki Urkixok erantzun du gaia jorratu egin dela jada Udaltzaingoarekin eta eremuan seinaleak ipintzeko asmoa dagoela, gidariak erne ibil daitezten.

- Pertsona berak planteatu du Ugaoko zabor-sistema bera instala litekeela, hau da, biltegi lurperatuak ipin litezkeela herriaren kanpoko eremuetan.

Alkateak azaldu du azken aldirian arazoak sortzen ari direla jendeak koltxoak, altzariak etab. botatzen dituelako zaramara edukiontzia dauden zonaldeetan. Biltegi lurperatu bat egiteko aukera aztertu da, baina gainerako udalerriekin koordinatu beharra dago, Aiaraldeko kuadrillaren eskumena delako. Hala ere, esan du Amurrión eta Ugaon ez daudela batere pozik

de acceso a la estación como por ejemplo desde Zubiko-Kurajo, que a priori parece sencillo, pero por ahora esto no es viable.

- Una vecina de Zubiko-Kurajo plantea los problemas del colector de agua. También pregunta si la calle finalmente va a ser peatonal o no,

Jon Ander Altube responde a esta cuestión comentando que en los últimos meses la calle ha permanecido abierta por las obras que se han estado realizando en la zona, pero que esa calle a futuro, volverá a ser peatonal, por lo que no van a poder circular coches por allí. También dice, que cuando coloquen los pivotes para que los coches no puedan circular, en los casos excepcionales en los que tenga que acceder un vehículo, la Policía Municipal se encargaría de abrir y cerrar el acceso.

- Otra de las personas de la asamblea comenta que en la carretera, sobre todo en los pasos de cebra, la iluminación es insuficiente o bien las farolas están situadas muy altas, ya que cuando llueve y vas conduciendo no se ven las personas que cruzan.

Jon Iñaki Urkixo, Alcalde de Llodio, responde que este tema ya se ha comentado con la Policía Municipal y que la intención es señalar la zona para advertir al conductor.

- La misma persona también plantea que se establezca el sistema de basuras de Uga, es decir, poner depósitos enterrados en zonas exteriores al pueblo.

El Alcalde explica que últimamente están surgiendo problemas, ya que la gente tira a la basura colchones, muebles, etc. en la zona de los contenedores. Se ha barajado hacer un depósito enterrado pero este tema hay que coordinarlo con el resto de municipios porque es competencia de la Cuadrilla de Ayala. Aun así, comenta que en Amurrión y en Uga no están nada contentos con este sistema.



	<p>sistemarekin.</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Laudioko beste auzokide batek galdetu du zergatik alboratu zen Renferen geltokira sartzeko arrapala bat egiteko ideia. <p>Jon Ander Altubek erantzun du hasiera batean arrapala ipintzeko aukera aztertu zela, baina, ondoren, Udala Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren barruko dirulaguntzen deialdira aurkeztu zuela proiektuaren bigarren fasea eta horixe dela egikaritu den proiektua. Egikaritutako proiektu horretan, ez zen arrapala sartzen. Arrapalaren aukera alboratzeko arrazoia izan zen arauak betetzeko handiegia izan behar zuela. Argi dago plataformak ez duela arazoa konpontzen, baina hori izan da geltokiaren irisgarritasuna hobetzeko egin ahal izan den gauza bakarra.</p> <p>Gehitu du bere ustez egin behar dena Renfe presionatzea dela, geltokiko irisgarritasuna hobetzeko pausoa eman dezan eta Adifekin nolabaiteko adostasuna lor dadin.</p> <p>Omnio zinegotzi Alvaro Barriosek esan du talde politiko guztiak ados daudela gai horri dagokionez eta, bere ustez, elkarrekin bultzatzea egin behar dela Adif presionatuta eta geltokia irisgarriago egin dezan.</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Batzarrean dagoen beste pertsona batek galdetu du Motxotekale asfaltatuko ote den. Halaber, galdetu egin du ikastolaren eskaileretako orubean zerbait egiteko asmoa ote dagoen. <p>Jon Ander Altubek erantzun dio asfaltatzea faseka egiten dela, gainerako batzarretan esan bezala. Motxotekale ez da lehentasunik txikiena duen eremua, baina, kasurik onenean, 2017an asfaltatuko da. Beste galderari dagokionez, erantzun du Valle Hermosok bere garaian eskatutako obra-lizentzia bertan behera utzi duela krisi ekonomikoa dela eta eta, gaur egun, ez dagoela argi norena den lurzatia. Hala ere,</p>	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Otro vecino de Llodio pregunta por qué se desechó la idea de hacer una rampa de acceso a la estación de Renfe. <p>Jon Ander Altube responde que en un inicio se barajó la posibilidad de alguna rampa pero después el Ayuntamiento se presentó a la convocatoria de ayudas del Plan Foral de Obras y Servicios con la 2ª Fase del Proyecto y es concretamente este el proyecto que se ha ejecutado, el cual no se incluía rampa, y es concretamente el proyecto que se ha ejecutado. La rampa básicamente se desechó porque si cumplía normativa, su extensión era muy amplia. Está claro que la plataforma no soluciona el problema pero es lo que se ha podido hacer para mejorar un poco la accesibilidad a la estación.</p> <p>En este sentido, se considera que lo que hay que hacer es presionar a Renfe para que dé el paso de mejorar la accesibilidad de la estación y llegar a algún tipo de acuerdo con Adif.</p> <p>Alvaro Barrios, Concejal de Omnia, dice que este es un tema en el que todos los grupos políticos están de acuerdo y que considera que todos debemos hacer fuerza conjunta para presionar a Adif y que haga nuestra estación más accesible.</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Otro asistente a la Asamblea pregunta si se va a asfaltar la calle Motxotekale. También pregunta si hay intenciones de hacer algo en el solar de las escaleras de la Ikastola. <p>Jon Ander Altube responde que el tema del asfaltado, como bien se ha comentado en todas las asambleas, va por fases. Motxotekale no estará muy lejos de las prioridades pero en el mejor de los casos para el 2017. A la otra cuestión responde que Valle Hermoso ha anulado la licencia de obras que solicitó en su día por la crisis económica y a día de hoy no se sabe muy bien de quién es esa parcela. Aun así se comentará para que</p>
--	---	---



	<p>lurzatia garbi eta behar bezalako baldintzetan izateko agindua emango da.</p> <p>➤ Bertaratutako pertsona batek adierazi du Udalaren informazio politika asko hobe litekeela egindako akatsen berri ere emango balitz eta eskura dituen informazio-bideak baliatuko balitu hanka-sartze batzuen arrazoiak azaltzeko. Espekulazioak ekidingo lirateke horrela. Halaber, esan du lehenago obra azkentzearen gaia aipatu dela, baina uste duela behar bezala azkentzeko bilketa pneumatikorako sarea biltegiarekin konektatu beharko litzatekeela Alzarrate zubiaren bidez. Galdetu du zertan den kontua URA agentziarekin.</p> <p>Laudioko alkate Jon Iñaki Urkixok erantzun du Udalak azaldu egiten dituela egindako akatsak, agian ez ditu horretarako bide egokiak erabiliko, baina egin, egiten du. Kontua izan daiteke bide gehiago erabiltzea.</p> <p>Jon Ander Altubek erantzun du badagoela URAk idatzitako proiektu bat. Ondoren, badago URA agentziak proiektuari heltzeko epe bat, erabilgarri duen aurrekontuaren arabera. Proiektuan aurreikusita dago Alzarrate zubia aldatzea (Villosa zubia).</p> <p>Jon Iñaki Urkixok erantsi du egikaritzeko kostua ordaintzea URA agentziari dagokiola; Udalari dagokion gauza bakarra zarama-sistemaren lotura egitea da, gainerakoa URA agentziari dagokio.</p> <p>➤ Batzarrera gerturatutako pertsona batek galdetu du zer gertatu den geltokiko obra bukatzean Jose Matian ipini behar ziren mutiloiekin.</p> <p>Obra, Zerbitzu eta Mantentze-lanen nahiz Landa-ingurunearen Arloko buru Juan</p>	<p>mantengan la parcela limpia y en condiciones.</p> <p>➤ Un asistente a la asamblea comenta que la política informativa del Ayuntamiento ganaría mucho si incluyera también los errores cometidos y aprovechara los medios informativos que tiene a su alcance para explicar el porqué de algunos fallos y así evitar especulaciones. También dice que anteriormente se ha comentado el rematar la obra, pero él considera que para rematarla faltaría la Conexión de la red de recogida neumática con el depósito a través del Puente de Villosa. Pregunta cómo está el tema con URA.</p> <p>El Alcalde, Jon Iñaki Urkixo, responde que el Ayuntamiento también explica los errores que comete, puede que no lo haga a través de los medios adecuados, pero lo hace. Todo sería plantear hacerlo por más vías.</p> <p>Jon Ander Altube, responde que hay un proyecto redactado por URA. Posteriormente, hay un plazo de tiempo para que URA pueda ir abordando este proyecto en función a su disponibilidad presupuestaria. En el proyecto sí que está prevista la modificación del Puente Alzarrate (Puente Villosa).</p> <p>Jon Iñaki Urkixo añade que el coste de la ejecución corresponde a URA, lo único que corresponde al Ayuntamiento es realizar el empalme del sistema de basuras, todo lo demás es competencia de URA.</p> <p>➤ Un asistente pregunta qué ha pasado con los bolardos que se iban a colocar en Jose Matia cuando acabara la obra de la estación.</p> <p>Juan Fernando Etxebarri, Responsable del Área de Obras, Servicios, Mantenimiento y</p>
--	---	--



Fernando Etxebarrik erantzun du falta diren mutiloiak zenbatu zirela (70 inguru) eta berriro ipintzea edo atzeraematea planteatu zela, kamioiek apur ez ditzaten. Berriro jartzen badira, oraingoak bezala kautxuzkoak jartzea edo beste materialen batez egindakoak jartzea aztertuko da.

- Mutiloien gaia jorratzen ari dela aprobetxatuta, bertaratutako pertsona batek adierazi du garajeetan mutiloiak jarri edo dagokion ibia ipini beharko litzatekeela. Esan duenez, Laudion bada ibirik gabeko garaje mordo bat eta, gainera, Udalak marra horia pintatzen die.

Juan Fernando Etxebarrik erantzun dio ibirik ez dutenetan ez dela marra pintatzen.

- Auzokide bat Solozelaiako zoladuraren egoeraz kexatu da.

Jon Ander Altubek erantzun dio kontuan hartuko dela.

- Batzarrera gerturatutako pertsona batek planteatu du Laudioko zenbait aparkaleku autokarabanetarako erabil litezkeela.

EAJ-PNV alderdiko zinegotzi Maider Basterrak erantzun du horixe planteatu zela Osoko Bilkuran aurkeztutako mozio batean eta onartu egin zela. EAJ-PNV alderdiak zenbait aparkaleku planteatu ditu horretarako aukera gisa, baina Udalaren zerbitzu teknikoek egokiena zein den azertu behar dute. Oso positibotzat jotzen dute aparkaleku bat autokarabanetarako erabiltzea, gaur egun bogan dagoen turismo mota delako; turistak herritik igaroko lirateke eta dirua utziko lukete bertan, aukera baliatuko luketelako erosketak egiteko.

PSE-EE alderdiko zinegotzi Txaro Sarasuak erantsi du orain eztabaidatu behar dena aparkalekuaren kokapen egokiena dela.

Medio Rural, responde que se hizo recuento de todos los bolardos que faltan (unos 70) y que se planteó reponerlos o retranquearlos, para que los camiones no los rompan. En el caso de que se repongan se va a valorar si ponerlos de caucho, como ahora, o poner otros distintos.

- Un asistente aprovechando que se trata el tema de los bolardos comenta que en los garajes o se ponen bolardos o que se solicite el vado correspondiente. Comenta que en Llodio hay un montón de garajes que no tienen vado y encima el Ayuntamiento les pinta la raya amarilla.

Juan Fernando Etxebarri le responde que los que no tienen vado no se pintan con ralla amarilla.

- Un vecino se queja del estado del pavimento en Solozelai.

Jon Ander Altube responde que se tendrá en cuenta.

- Una de las personas que asiste a la asamblea plantea el uso de parkings de Llodio para las autocaravanas.

Maider Basterra, Concejal de EAJ-PNV, responde que esa es una moción que plantearon en el Pleno y que fue aprobada. EAJ-PNV ha planteado varios aparcamientos como posible ubicación, pero los servicios técnicos del ayuntamiento tienen que comprobar qué lugar es el más adecuado para ello. Sí que ven muy positivo el uso de un parking para autocaravanas, ya que consideran que es una clase de turismo que está muy de moda ahora, son personas que estarían de paso por el municipio y suele dejar dinero en las zonas donde está ya que aprovechan para hacer compras.

Txaro Sarasua, Concejal de PSE-EE, añade que el debate ahora es qué zona es la mejor para situar este parking; y se está esperando un



Oraindik ez da jaso horrelako aparkalekua izateko beharrezko baldintzak betetzen dituzten tokiak proposatzeko txosten teknikoa.

- Zenbait auzokide kexu dira tabernek eta diskotekek gauetz eragiten duten zaratarengatik eta galdetu dute zaraten inguruko arautegiren bat ote dagoen.

Erantzun diote ordenantza berria aurrekoa baino zorrotzagoa eta murriztaileagoa dela. Osoko Bilkuran zaraten mapa eta ordenantza onartu dira. Ordenantza berriak babes handiagoa ematen die auzokideei zaraten motei, intentsitateei eta zaraten kokapenei dagokienez. Tabernen eremuan ez litzateke arazorik egon behar zaratarekin, ixteko ordutegiarekin baizik. Laudioko ostalaritza-establezimenduek kategoria bat daukate eta horren arabera itxiera ordua ezartzen zaie. Ordutegi horiek Tokiko Garapen Agentziaren webgunean daude kontsultatzeko.

- Jose Matiako auzokide bat kexu da gaueko ordu txikietan trenak egiten duten zarataz eta galdetu du ea protokoloen bat dagoen tren istripuren bat edo halakoren bat gertatuko balitz auzokideei jakinarazteko. Halaber, iradoki du zebra-bideen ondoan kale-argiak ipin litezkeela.

- Bertaratutako beste auzokide batek parkeko obrei buruz esan du espaloia oso ondo dagoela, baina barrutik badagoela oso txarto azkendutako zati bat. Konponduko ote den jakin nahi du.

Juan Fernando Etxebarrik erantzun dio proiektuaren aurreikuspenen hiri-zerbitzuak ipintzea eta zerbitzu horiek eragindako zoladurak ordezteko baina ez zela jaso, ez zegoela dena ordezteko aurreikusi. Dirua ez da dena ordezteko iritsi, baina, hala ere, gutxika ordeztuko da eta zonaldea behar bezala utziko da.

informe técnico que proponga los sitios que cumplan los requisitos necesarios para situar esta clase de parking.

- Varios vecinos se quejan de los ruidos de bares y discotecas por la noche y preguntan si hay alguna normativa establecida sobre ruidos.

Le responden que la nueva ordenanza es más dura y más restrictiva que la anterior. Se ha aprobado en el Pleno un mapa de ruidos y posteriormente una ordenanza. Esta ordenanza protege más a los vecinos en cuanto a los tipos e intensidades de ruidos y en qué tramos urbanos se dan esos ruidos. En la zona de bares no debería haber un problema de ruidos si no un problema de horario de cierre. Los establecimientos hosteleros de Llodio disponen de una categoría y dependiendo de ello tienen un horario de cierre. Estos horarios están disponibles en la página web de la Agencia de Desarrollo Local.

- Una vecina de Jose Matia se queja de los ruidos de los trenes de madrugada, y dice si hay algún tipo de protocolo para comunicar a los vecinos en el caso de que hubiera algún accidente de trenes o algo similar. También sugiere colocar pasos de cebra con farolas anexas.

- Una asistente a la asamblea comenta sobre las obras del parque que la acera está muy bien pero por dentro hay un trozo que está muy mal rematada, pregunta si se va a arreglar.

Juan Fernando Etxebarri le responde que en la ejecución del proyecto sólo estaba contemplada la realización de los servicios y la reposición de los pavimentos afectados por esos servicios, no estaba contemplado reponer todo. No ha llegado para reponer todo, aun así poco a poco se irá reponiendo y



- Batzarrera etorritako pertsona batek hiru proposamen egin ditu: lehena La Granja kiroldegiaren inguruko lurrari dagokio; proposatzen du Arabako Foru Aldundiak zonalde hori bertoko landareak hazten uzteko baimena eman dezan erabiltzea, ondoren jolas-, kirol-edota atsedenleku gisa erabiltzeko. Bigarren proposamena kasinoko eraikinaren ingurukoa da; kafe-antzoki txiki gisa erabil litekeela dio. Hirugarren proposamena da estalkidun banku batzuk egitea euria ari duen egunetan esertzeko.

Lehenengo proposamenari dagokionez, Jon Iñaki Urkixok esan du hostozabalekin basoberritzen ari dela, batez ere, haritzekin. Hazten uzten ari zaie, hain zuzen ere, ondoren, planteatutakoaren antzeko zerbait egiteko.

- Beste auzokide batek planteatu du parkearen birgaitzea koordinatu behar dela zer erabilera eman behar zaion argitzeko.

Jon Ander Altubek erantzun du erabilera ondo definituta dagoela eta argi dagoela erabilera soziokulturala izan behar duela. Arabako Foru Aldundiaren iritziz, eztabaida Laudion bertan egin beharra dago eta horixe da asmoa, gero iradokizunak Aldundiari helarazteko. SOS Parkea plataformak hainbat hobekuntza planteatu du Musikaren Etxerako; iradokizun horiek Aldundiari helarazi zaizkio Udalaren bitartez eta ebazpenaren zain gaude orain, baina horri dagozkion erabakiak Arabako Foru Aldundiak hartzen ditu. Bermatuta dagoena da erabilera publikoa izango duela.

- Batzarrera hurbildutako beste pertsona batek galdetu du nola eragotz daitezkeen gazteen etxabeetatik datozen zaratak eta ea horren inguruko araudirik dagoen.

dejando la zona correctamente.

- Un asistente a la asamblea hace tres propuestas: la primera hace referencia al terreno que rodea el polideportivo de La Granja; propone habilitar esa zona para que la Diputación Foral de Álava dé permiso para que la planta autóctona crezca y utilizar ese terreno como zona de esparcimiento, deportiva y de descanso. La segunda propuesta se refiere al edificio del casino y dice que se podría utilizar como un pequeño café-teatro. Y la tercera propuesta es que se hagan algunos bancos con una cubierta para los días de lluvia.

Jon Iñaki Urkixo hace referencia a la primera de sus propuestas y comenta que se está repoblando de frondosas, principalmente de robles, y se están dejando crecer precisamente para posteriormente hacer algo como lo que ha planteado precisamente.

- Otro vecino plantea que haya coordinación en la rehabilitación del parque para saber qué uso darle.

Jon Ander Altube responde que el uso está bien definido y que está claro que el uso debe ser socio cultural. La Diputación Foral de Álava está de acuerdo en que ese debate debe hacerse en Llodio y esa es la intención, para luego hacerle llegar esas sugerencias a la Diputación. SOS Parkea planteaba una serie de mejoras para la Casa de la Música, estas sugerencias se han hecho llegar a la Diputación a través del Ayuntamiento y estamos a la espera de resolución, pero en este sentido las decisiones las toma la Diputación Foral de Álava. Lo que sí se garantiza es que tenga un uso público.

- Otro asistente a la asamblea pregunta cómo evitar los ruidos en las lonjas de los chavales y si hay normativa al respecto.



	<p>Amets Mezak erantzun dio ez dagoela horren inguruko ordenantzarik ez delako beharrezkotzat jo etxabe kopuruari eta kexen kopuruari erreparatuta. Laudion 50-60 lonja daude eta kexak oso noizbehinkakoak dira. Hala ere, esan du protokolo bat adostuko dela Udaltzaingoaren, Ingurumen Arloaren eta Gazteria Arloaren artean. Dena den, adierazi du gazteen etxaberen batekin arazoren bat izatekotan, Udaltzaingoari jakinarazi behar zaiola dagokion espedientea izapide dezaten.</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Beste auzokide batek herriko garbitasuna aipatu du eta iradoki du espaloiak presiopeko urarekin garbi litezkeela. <p>Jon Ander Altubek erantzun dio horren inguruko ahalegin berezia egiten ari direla garbiketaz arduratzen den enpresarekin.</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Auzokide batek esan du aurten Jose Arruen ez dela Gabonetan inolako argirik ipini. <p>Jon Ander Altubek erantzun dio Gabonetako argiak erdialdean soilik bermatzen direla, erdialdean zentzu hertsian, baina, hala ere, urtero-urtero argiak udalerriko leku gehiagotan ipintzen ahalegintzen direla eta, izan ere, erdialdetik urrun ere ipini direla argiak.</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Auzokide batek planteatu du Lamuza ikastetxeko aparkalekua erabil litekeela auto gehiago aparkatzeko. Halaber, galdetu du autoen abiadura kontrola ote daitekeen Lamuza parkeko kalea jaisten dutenean. 	<p>Amets Meza, responde que no hay Ordenanza en este sentido, porque no lo han visto necesario viendo la proporción entre cantidad de lonjas y quejan interpuestas al respecto. Hay 50-60 lonjas en Llodio y las quejan son muy puntuales. Aun así comenta que se va a buscar un protocolo a seguir entre Policía Municipal, Área de Medio Ambiente y Área de Juventud. Aun así, comenta que en el caso de tener algún problema con algún local juvenil, hay que notificárselo a la Policía Municipal para que tramiten el correspondiente expediente.</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Otro asistente habla de la limpieza del pueblo en general y sugiere que se limpien las aceras con agua a presión. <p>Jon Ander Altube responde que se está haciendo especial esfuerzo con la contrata de limpieza en este sentido.</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Un vecino dice que este año en Jose Arrue no ha habido iluminación navideña alguna. <p>Jon Ander Altube responde que la iluminación navideña se garantiza sólo en el centro en sentido estricto pero que aun así, se hace un esfuerzo cada año para que la iluminación llegue a más zonas del municipio y de hecho se ha sacado la iluminación lejos del centro.</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Un vecino plantea aprovechar el aparcamiento del Colegio Lamuza para que aparquen más coches. También pregunta si se puede controlar la velocidad de los coches al bajar la calle del parque de Lamuza.
--	---	--